

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

I. KAPITULUA

I.- Xedapen Orokorrak:

1. ARTIKULUA.- Durangoko udal-hilerria Udalaren jabetzako zerbitzu publikoak denez, Udalbatzak soilik kudeatzen, zaintzen eta zuzentzen du, araudi honetan adierazitakoarekin bat, betiere, Agintaritza Judizialari –eta, hala badagokio, Osasun-agintaritzari– dagozkion ahalmenei kalterik eragin gabe.

2. ARTIKULUA.- Udalari dagokio:

- a) Hilerria zaintzea, garbitzea eta prestatzea.
- b) Lursailak, horma-hobiak eta hilobiak banatzea.
- c) Lur-eremuak, obra-baimenak eta hilobi-eskubideak emateagatik, Ordenantza Fiskalaren arabera sortutako eskubideak eta tasak jasotzea.
- d) Zerbitzu egokia eskaintzeko beharrezko diren langileak izendatzea.


3. ARTIKULUA.- Partikularrei dagokie:

- a) Hilerrian ehorzte duina izateko eskubidea, pertsonen arraza, erlijioa eta herrialdea zeinahi dela.
- b) Hileta-eskubideak eta norbere erlijioari nahiz ideologiari dagozkion ohiturak hautatzea eta erabiltzea, araudi honetan ezarritakoarekin bat.
- c) Dagokien lursaila, horma-hobia, hilobia, etab., gura duten moduan kontserbatzea eta apaintzea, eta gura duten itxura ematea.
- d) Ordenantza Fiskalean adierazitako zerbitzuei dagozkien eskubideak edo tasak ordaintzea.
- e) Hiletetako Osasun Poliziaren agindupean emandako xedapen guztiak betetzea.

II.- Definizioak:

4. ARTIKULUA.- Araudi honetarako, definizio hauek hartuko dira oinarri:

Gorpua: Giza gorputza, benetako heriotzatik lehenengo bost urteetan, Erregistro Zibilean jasotako heriotzaren egunetik eta ordutik aurrera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Gorpu-hondarrak: Gai organikoa desegin ostean, giza gorputzetik geratzen dena, benetako heriotzatik lehenengo bost (5) urteak igarotakoan.

Usteltzea: Gai organikoa desagerrarazten duen prozesua, gorpua erasotzen duten mikroorganismoek eta bestelako animalia laguntzaileek eragindakoa.

Eskeleto bihurtzea: Gai hila desintegratzeko azken fasea, eskeletoaren hezur-hondarrak –atal bigunik eta elementu bategilerik gabekoak– bereizten direnetik erabat mineraltzen diren arte.

Gorpua erraustea edo erretzea: Beroaren bidez gorpua errauts bihurtzea.

Gorpua aldi baterako mantentzea: Usteltze-prozesua atzeratzen duten metodoak.

Hilondura edo tanatopraxia: Usteltze-fenomenoak oztopatzen dituzten metodoak.

Gorpuzkiak: Giza gorputzaren zati anputatuak edo bereiziak.

III.- Gorpuen sailkapena:

5. ARTIKULUA.- Araudi honetan, bi taldetan sailkatuko dira gorpuak, heriotza-zergatien arabera:

1. taldea. Hauek hartzen ditu aintzat:

a) Pertsonentzako arriskutsuak diren zergatiengatik hildakoak. Zergati horien artean daude, esate baterako, kolera, lupua, baztanga eta eskumeneko Osasun-agintaritzak adierazitako gainerako guztiak.

b) Produktu erradioaktiboz kutsatutako gorpuak.


2. taldea. Lehen taldean jaso ez den beste edozein zergatirengatik hildako pertsonak.

II. K A P I T U L U A

GORPUAK GARRAIATZEA ETA LEKUALDATZEA

6. ARTIKULUA.- Debekatuta dago araututako hilkutxa gabe gorpuak garraiatzea, lekualdatzea eta ehorztea.

Behartsuentzako hilkutxak Udalak emango ditu.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Gorpuak dituzten hilkutxak garraiatzeko, dauden lekutik irten aurretik, itxi egingo dira beti.

7. ARTIKULUA.- Hileta-autoetan eraman eta lekualdatuko dira gorpuak. Gorpuak bizkarka eramateko baimena behar izango da, eta kasu bakoitzean horretarako arrazoiak entzun ostean emango da. Baimen-eskaeran, egin beharreko ibilbidea, ordutegia eta bertaratuko pertsonen kopurua, gutxi gorabeherakoa, adierazi beharko da. Alkatetzari egin beharko zaio eskaera, gorpua garraiatu baino hogeita lau ordu lehenago, eta Osasun-agintaritzaren txostena jaso ostean emango du horrek ebazpena.

8. ARTIKULUA.- Ehorzteko baimena duen gorpua besterik ezingo da hilkutxan sartu; debekatuta dago, beraz, bi gorpu edo gehiago sartzea, ondoko salbuespenetan izan ezik:

- a) Erditze-une berean hildako jaio berria eta ama ehortzi behar direnean.
- b) Hondamendiren baten ondorioz hildako pertsonak direnean.
- c) Epidemia-anormaltasun larri hildakoak direnean.


9. ARTIKULUA.- Hileta-egoitzan egongo dira gorpuak, Erregistro Zibilean atxikitako medikuak heriotza berretsi arte. Gorpuak, oro har, heriotza gertatu zenetik hogeita lau ordutik gora eta berrogeita zortzi ordutik behera egon beharko du hileta-egoitzan.

Hilondutako gorpuak, berriz, laurogeita hamasei orduz egon ahal izango dira hileta-egoitzan. Aldi baterako mantendutako gorpuak ezingo dira euren egoitzatik beste batera eraman; aitzitik, zuzenean eramango dira hileta-egoitzatik baimendutako hilerrira –herri berera zein beste herri batera–, bertan ehortz dezaten.

10. ARTIKULUA.- Heriotza gertatu zenetik, gehienez, berrogeita zortzi orduz egon ahal izango dira gorpuak toki publikoetan ikusgai, eguraldiak horretarako bide ematen badu. Horretarako, Alkatetzari eskatuko zaio baimena, lekua nahiz ordua zehaztuta, eta Alkatetzak Osasun-agintaritzaren txostena jaso ostean ebatziko du eskaera.

11. ARTIKULUA.- Araudi honetako 5. artikuluan adierazitako 2. taldeko gorpuei besterik ezingo zaizkie aplikatu aurreko bi artikuluko horiek.

12. ARTIKULUA.- 5. artikuluan adierazitako 1. taldeko gorpuak garraiatzeko edota lurpetik ateratzeko baimenik ez da emango.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Lehen taldeari dagokion gorpuren bat berehala ehorzteko osasun-arrazoiak daudenean, hilerriko gorputegira premiaz eramateko agindua emango da.

III. KAPITULUA

GORPU-EHORZKETAK

13. ARTIKULUA.- Hiletetako Osasun Poliziaren Araudiko 13. artikuluekin bat, heriotza gertatu zen udalerrian ehortziko dira araudi honetako 5. artikuluko 1. taldeari dagozkion gorpuak.

14. ARTIKULUA.- Pertsonaren bat herritik kanpo hil bada eta herriarekin ez badu jaiotzako edo egoitzako inolako loturarik, ez da haren gorpua Durango nahiz lurretako hilerrietan ehorzteko baimenik emango, eta ez du hileta-eskubiderik izango.

15. ARTIKULUA.- Hileta-enpresek zehatz-mehatz bete behar dituzte aurreko xedapen guztiak, eta gorpua jaioterrira garraiatu behar duten familiartekoei eragindako kalte-galeren erantzule izango dira.

Era berean, ehorzleak ez ditu onartuko aurreko artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten gorpuak.


16. ARTIKULUA.- Ehorzteko baimena jaso ostean, lurperatzeko eramaten diren gorpu guztiak ehortziko dira Udaleko hilerrietan, aurreko artikuluetan xedatutako guztia aintzat hartuta.

Hil ostean, gutxienez, hogeita lau ordu igaro arte ez dira gorpuak ehortziko.

17. ARTIKULUA.- Lur-hobietan, horma-hobietan, obrako nahiz fabrikako hilobietan, panteoi edo mausoleoetan ehortziko dira gorpuak, eta Hiletetako Osasun Poliziaren 1974ko uztailaren 20ko Araudian adierazitako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

18. ARTIKULUA.- Ehorzlea bertan dagoela lurperatuko dira beti gorpuak.

19. ARTIKULUA.- Gorpua hobi zenbakituan lurperatzen denean, hobi bakoitzean gorpu eta hilkutxa bana sartuko dira; gero soberako lurrez beteko da hobia kontu handiz.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Araudi honetako VIII. artikuluan aurreikusitako salbuespen-egoeretan, gorpu bat baino gehiago ehortzi ahal izango da hobi bakoitzean.

20. ARTIKULUA.- Zenbakitutako hobi bakoitzaren gainean, gorpuaren ordena-zenbakia duen zedarria ipiniko da. Ehortzitakoan, ehorzleak agiria emango die familiartekoei, eta, bertan, gorpua zein hobi-sailetan eta zein zenbakitan lurperatu den adieraziko da.

21. ARTIKULUA.- Hildakoaren familiartekoei ordaindu beharko dituzte lur-hobietako gurutzeak, oroitarriak edo hilarriak, baita horiek ipintzeko lanak ere, eta Udalak adieraziko du osagarri horiek zein neurri izango duten.

22. ARTIKULUA.- Horma-hobi bakoitzean gorpu eta hilkutxa bana sartuko dira, Araudiko VIII. artikuluan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Ehortzitakoan, berehala estaliko da horma-hobia 0,05 metroko espazio librea duen trenkada bikoitzaren bidez, eta ezingo da estali ez zementu hidraulikoz ez eta bestelako gai iragazgaitzez ere.


23. ARTIKULUA.- Trenkada bikoitza egiteko eraikuntzako eta igeltserotzako lanak Udalak ordainduko ditu, baita oroitarria ipintzeko lanak ere; oroitarria bera eta inskripzioa, ordea, hildakoaren familiartekoei ordaindu beharko dute.

24. ARTIKULUA.- Gorpua horma-hobian ehortzeko, dagokion hileta-eskubidearen ziurtagiria erakutsi beharko zaio ehorzleari. Ehortzitakoan, horren berri jasoko da ziurtagirian, gorpuaren datu pertsonalak adierazita.

25. ARTIKULUA.- Gorpuak Udaleko hilerrietan eraikitako hilobietan eta panteoietan ehortzeko baimena eskuratzeko, lehenik eta behin, hilobi edo panteoiek osasun-eskakizunak betetzen dituztela ziurtatu beharko du Osasuneko Lurralde Burutzak, Hiletetako Osasun Poliziaren 1974ko uztailaren 20ko Araudiaren 26. artikuluekin bat.

26. ARTIKULUA.- Gorpuak hilobietan edo panteoietan ehortzeko, ezinbestekoa da ehorzleari hileta-eskubidearen ziurtagiria erakustea, eta, ehorzleak eskubidea egiaztatutakoan, jabeari itzuliko dio dokumentua, erregistroan eta ehortze-tituluan horren berri jaso ostean.

27. ARTIKULUA.- Hilobi edo panteoien ilara bakoitzean, gorpu bakarra ehortziko da aldiro; gorpuak erditzean hildako ama eta jaioberria direnean salbu. Ehortzitakoan,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

adreiluzko trenkada edo gangatila baten bidez beteko da panteoiko edo hilobiko apalaren hutsunea, eta ehorzleak gauzatuko ditu lan horiek, Udalak ordainduta.

28. ARTIKULUA.- Gorpua manipulatzeko, baimen edo esku-hartze sanitarioa beharko da beti, indarrean dagoen legediaren arabera beharrezkoa izan daitekeen baimen judizialaz gain.

Horrenbestez, eskumeneko Osasun-agintaritzaren baimena eta esku-hartzea ezinbestekoa izango da, gorpua aldi baterako mantentzeko, hilontzeko, errausteko edo bestelako ekintzak gauzatzeko.

29. ARTIKULUA.- Gorpua aldi baterako mantentzea edo hilontzea nahitaezkoa izango da, hurrenez hurren, heriotza-unetik berrogeita zortzi edo hirurogeita hamabi ordura ehortzi behar denean gorpua.


I V. K A P I T U L U A

GORPUA HOBITIK ATERATZEA

30. ARTIKULUA.- Ondoko kasu hauetan emango da araudi honetako 5. artikulua 2. taldeari dagozkion gorpu hilondu gabeak hobitik ateratzeko baimena:

- a) Osasun-agintaritzaren iritziz, gorpua hilerri berean beste hilkutxa batean berehala berriz ere ehortzi behar denean, aurreko hilkutxan baldintza egokiak betetzen ez direlako.
- b) Gorpua beste hilerri batera lekualdatu behar denean. Dena dela, Osasun-agintaritzak horretarako baimena eman beharko du, gorpua nola dagoen, eta urtaroko klimatologia-baldintza egokiak ote diren aintzat hartuta. Gorpua lekualdatzerakoan, beraz, Osasun-agintaritzak emandako baimena eraman beharko da, eta gorpua berrogeita zortzi orduren buruan ehortzi beharko da berriz.
- c) Gorpua berehala erraustu behar denean, indarrean dauden xedapenekin bat.

31. ARTIKULUA.- Hilondutako gorpuak hilobitik ateratzeko eta lekualdatzeko, Osasun-agintaritzaren baimena beharko da beti, eta zerraldoaren kanpoaldeko kutxa aldatu egingo da, eskas badago.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Hilondutako gorpua beste gorpu batzuekin ehortzi bazen, hobotik ateratzeko eta lekualdatzeko, aurreko artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

32. ARTIKULUA.- Gorpua hobotik ateratzeko baimena –aurreko artikuluetan adierazitakoa– Osasuneko Lurralde Burutzari eskatuko zaio, eta, eskabidearekin batera, hobotik atera gura den gorpua ehorzte-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

33. ARTIKULUA.- Gorpu-hondarrak hobotik atera eta Estatuko lurraldearen barruan berriz ere ehortzi behar direnean, “Gorpuzkien Kutxan” gorde ahal izango dira. Osasuneko Lurralde Burutzari egingo zaio eskaera, eta, horrekin batera, heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da, heriotzaren zergatia eta data adierazita.

34. ARTIKULUA.- Domeketan eta jai-egunetan ezin da gorpua hobotik atera, agintaritza judizialak besterik agintzen ez badu.


35. ARTIKULUA.- Gorpuak hobotik ateratzean agertutako hilkutxak, xingolak, koroak etab. erraustu egingo dira berehala.

36. ARTIKULUA.- Gorpua lur-hobian ehortzi zenetik hamar urte igaro bada edo hileta-eskubideaz gozatzeko epea agortu bada, gorpuzkiak hobotik atera, eta hezurtegi orokorrera eramango dira, tasarik edo eskubiderik sortarazi gabe.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, epeak iraungi ostean, hobotik ateratako gorpu-hondarrak gorpuzkien horma-hobietan gordeko dira, familiartekoek hala eskatzen badute, Ordenantza Fiskalean adierazitako tasak ordaindu ostean.

Hilobietatik eta panteoietatik ateratako gorpuzkiak, familiartekoen gurariei jarraiki, hezurtegi orokorrean edo gorpuzkien horma-hobian gordeko dira –azken kasu horretan, udal-tasak ordainduta.

37. ARTIKULUA.- Gorpu-hondarrak gorpuzkien horma-hobietara eramateko eta han gordetzeko, metalezko kutxak erabiliko dira, edo beste edozein material iragaztezin edo iragazgaiztukoak. Gorpuzkiak gordetzeko neurri zehatzak edukiko dituzte kutxek.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

V. K A P I T U L U A

ORDUTEGIAK

38. ARTIKULUA.- Alkatetza-udalburutzak finkatuko ditu hilerriak bisitatzeko ordutegiak, Osasuneko Informazio Batzordearen proposamenez. Bisitariak begirunez ibili beharko dute hilerrietik; debekatuta dago, beraz, mozkortuta, txakurrekin edo bestelako animaliekin edota salgaiekin sartzeara. Arau hori urratzen dutenei errieta egingo zaie, eta kanporatu egingo dituzte; horrez gain, haien aurka jo ahal izango da administrazio-bidez nahiz auzibidez –kasuan kasu.

39. ARTIKULUA.- Debekatuta dago jendea gorputegira eta hezurtegi orokorrera sartzeara.


Gorpua gorputegian dagoen bitartean hildakoaren familiartekoei lagun egin nahi badiote, batetik, alkate-udalburuaren berariazko baimena eskuratu beharko dute, eta, bestetik, ehorzleak egonaldi-orduei buruz, gorputegiko ordenari buruz eta abarrei buruz agindutakoa bete beharko dute.

40. ARTIKULUA.- Alkatetza-udalburutzak finkatuko du gorpua jasotzeko eta ehorzteko ordutegia, Osasuneko Informazio Batzordearen proposamenez.

Gorpua ehorzteko, araudi honetako XIII. artikuluan agindutakoa betetzeaz gain, aurreko idatz-zatian adierazitako ordutegia amaitu baino ordu erdi lehenago egon beharko du gorpua hilerrian; bestela, gorputegian geratuko da, eta hurrengo egunean ehortzi.

41. ARTIKULUA.- Domeketan eta jai-egunetan, aurreko artikuluan adierazitako ordutegiaren barnean, hileta-enpresek beharrezko langileak bidali beharko dituzte hilerriara, gorpua ehortzi arte gorputegian gordetzeko, eta egun horretan bertan ehortziko da, gorpua goizean eraman eta 16. artikuluan adierazitako epea igaro bada; arratsaldean eramanez gero, berriz, hurrengo egunean ehortziko da.

42. ARTIKULUA.- Araudi honetako 9. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hileta-egoitzak ez dituen beharrezko eskakizunak betetzen edo gorpua egoerak hala gomendatzen duenean, gorputegira eraman ahal izango da, eta bertan egongo da ehorzteko legeko epea igaro arte.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

VI. KAPITULUA

HILETA-ESKUBIDEA

43. ARTIKULUA.- Lur-hobia, horma-hobia, hilobia edo panteoia erabiltzeko edo horretaz gozatzeko eskubidea da hileta-eskubidea, eta gorpuak edo gorpuzkiak ehorzteko besterik ezin da erabili. Bestalde, hilerriko hobi-mota horiek guztiak Udalaren jabetzakoak dira.

44. ARTIKULUA.- Hileta-eskubidea emateko eta hobeto hautemateko, honela banatuko da hilerriko lur erabilgarria:


- a) Lur-hobiak lursailka banatuko dira, eta sail bakoitza ilaraka; hobiei, bestalde, ondoz ondoko zenbakiak ezarriko zaizkie.
- b) Horma-hobiak fatxada bakarreko edo biko multzotan banatuko dira, eta taldearen zenbakiaren edo izenaren arabera edo multzo bakoitzaren ordena-zenbakiaren arabera identifikatuko dira.
- c) Panteoiak eraikitzeko lursailak ilaran antolatuko dira, ondoz ondoko zenbakien bidez bereizita.
- d) Horma-hobi arruntak baino neurri txikiagoko gorpu-hondarrak gordetzeko horma-hobiak aurrekoak bezala antolatuko dira.

45. ARTIKULUA.- Eraikitze-obraik behar ez duen hobia edukitzeko hileta-eskubidea hamar urtekoa izango da, eta, epea amaitutakoan, hobotik aterako dituzte gorpu-hondarrak, araudi honetako 36. artikuluan aurreikusitako moduan.

46. ARTIKULUA.- Horma-hobia edukitzeko hileta-eskubidea hamar (10) urtekoa izango da gehienez, eta, epea iraungitakoan, hobotik aterako dituzte gorpu-hondarrak, araudi honen XXXVI. artikuluan aurreikusitako moduan. Gorpu-hondarrak gordetzeko horma-hobie dagokienez, hogeita hamar (30) urtekoa izango da epea.

Hobiratzetik hamar urte igaro ez badira, beranduago aterako dira gorpu-hondarrak hobotik.

Debekatuta dago horma-hobi bakoitzean gorpu bakar bat baino gehiago ehorztea, eta, horma-hobi berean beste gorpu bat hobiratzeko, lehenik, aurreko gorpu-hondarrak atera beharko dira arautako moduan.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

47. ARTIKULUA.- Salbuespen-kasuetan, Udalerrikoak ez diren eta bertan bizi ez diren pertsonen hileta-eskubidea eman ahal izango zaie hamar urtez; baina, epea igarota, Udalerriak eskuratuko du jabetza hori, eta, gorpuzkiak hobitik atera egingo dira, araudi honen XXXVI. artikuluan xedatutakoarekin bat.

48. ARTIKULUA.- Panteoiak eraikitzeko lursailen hileta-eskubidea berrogeita hamar (50) urtekoa izango da. Epe hori igarota, hileta-eskubidea iraungi, eta Udala eraikuntza horren jabe egingo da; titularrak, gainera, ez du trukean inolako kalte-ordainik jasoko. Nolanahi ere, Udalak lursail hori berriz esleitu behar balin badu, aurreko titular horri eskubidea berritu edo eskubidea lortzeko lehenespena emango dio. Gorpuzkiak araudi honetako 36. artikuluan xedatutakoarekin bat aterako dira hobitik, betiere, azken ehorzketatik hamar urte igaro badira.

49. ARTIKULUA.- Alkate-udalburuari dagokio hileta-eskubidea ematea.

VII. KAPITULUA


HILETA-ESKUBIDEA ESKUALDATZEA

50. ARTIKULUA.-

- 1.. Hileta-eskubideak ezingo dira eskualdatu “inter vivos” egintzen bidez, eskubideen edukia eta gozamen-epea zeinahi dela ere. Hileta-eskubidea eskualdatzean –kostu bidez nahiz doan–, iraungi egingo da, eta Udalak berrikusi egin beharko du. Bestalde, panteoien kasuan, Udaleko Zerbitzu Teknikoen balioespenaren arabera kalte-ordaina emango du Udalak.
- 2.. Ahaidetasun zibila duten familiartekoei, aitzitik, euren artean eskualdatu ahal izango dituzte hileta-eskubideak, dohaintza-moduan.
- 3.. Era berean, Udalari ere eman ahal izango zaizkio hileta-eskubideak; eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen balioespenaren arabera ordainduko ditu Udalak eskubide horiek.

51. ARTIKULUA.-

- 1.. Hileta-eskubideak “Mortis causa” egintzen bidez eskualdatzen direnean, kausatzaileak izendatutako onuradunek jasoko dituzte eskubideak. Hileta-eskubidearen onuradunak bi edo gehiago direnean, adinez nagusiena den



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

jaraunsleak eskuratuko du titulartasuna –etorkizuneko titularra zein izango den jaraunsleek eurek erabakitzen dutenean salbu.

- 2.. “Ab Intestato” oinordetzan, nahitaezko jaraunsleek eskuratuko dute hileta-eskubidea.

52. ARTIKULUA.- Hileta-eskubidearen titularrei eskubide horren titulua edo egiaztagiria emango zaie, eta bertan jasoko dira burututako ehorzketa nahiz desehorzketa guztiak.

VIII. KAPITULUA

ERAIKUNTZAK

53. ARTIKULUA.- Hileta-eskubidearen titularrak ordainduko ditu hilobien, panteoien etab. eraikuntza-gastuak. Horretarako, eskumeneko teknikariak sinatutako obra-proiektua aurkeztuko du, eta obra-baimena, hala dagokionean, Udalak emango dio.

54. ARTIKULUA.- Hilobietako edo panteoietako apal-kopuruaren arabera, horietan zenbat ehorzketa egin daitezkeen finkatuko da obra-baimenaren emakidan; halaber, obrak hasteko eta amaitzeko epea ere adieraziko da bertan. Bi epe horietakoren bat igaro orduko, baimena iraungi egingo da, Obra-baimenen Arau Orokorriari jarraiki.


55. ARTIKULUA.- Panteoiak edo mausoleoak eraikitzeko, material nobleak erabili beharko dira kanpoaldean, Udalak zehaztutakoaren arabera.

56. ARTIKULUA.- Edozelako obra amaitutakoan, lurra, harriak, obra-hondakinak eta, oro har, erabilitako materialen hondakin guztiak jaso beharko dituzte eraikitzaileek edo, bestela, emakidadunek. Gisa bera, ibilgailuen bidez edo beste edozein gailuren bidez, kaleetan, lorategietan, eraikinetan eta abarretan eragindako kalte guztiak konpondu beharko dituzte.

IX. KAPITULUA

LANGILEAK

57. ARTIKULUA.- Ehorzleak, hilerriko zerbitzuen arduraduna denez, ondoko zeregin hauek izango ditu:



DURANGO


Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Araudi honetan manatutako guztia betetzen dela zaintzea.
2. Hilerrian obrak edo bestelako lanak egiten diharduten langileak jagotea, eta euren arduradunei haiek egindako huts eta neurrigabekerien berri ematea.
3. Ehorzketen, Desehorzketen eta Errausketen Erregistro-liburua eratzeko datu guztiak jasotzea, eta, ondoren, datuok Udaleko Idazkaritzari edo Udalak lan horretarako izendatutako langileari igortzea, Udalak hilerrian burututako jarduerak jaso ditzan.
4. Herritarrei beharrezko arreta eta begirunea eskaintzea.
5. Instalazioak garbitzea eta desinfektatzea –gorputegia bereziki.
6. Udalaren baimena izan ezean, eraikuntzako materialak edo lan-tresnak hilerriara sartu edo atera ditzaten debekatzea.
7. Ehorzketak prestatzeko, hobiak, hilobiak, horma-hobiak eta panteoiak irekitzea eta ixtea.
8. Gorpuak nahiz gorpu-hondarrak ehorztea, desehorztea edota lekualdatzea, eta lan guztiak arretaz egitea, gizalegez eta begirunez jokatuta.
9. Hilerria garbitzeko eta saneatzeko lanak egitea.
10. Ehorzketa burututakoan, gorputegia egunero oso-osorik garbitzea eta desinfektatzea.
11. Gorpuak hobitik ateratzean agertutako hondarrak (hilkutxena, xingolena, koroena, arropena etab.) berehala erraustea.
12. Udalak hilerrian ipinitako lorategiak eta sailak apain edukitzea eta mantentzea.
13. Hilerriko giltzak gordetzea, eta horien ardura izatea. Hortaz, ehorzleak ireki eta itxiko du hilerriko atea.
14. Gorpuak sartzen direnean, hilerriko atarian egotea.

58. ARTIKULUA.- Ehorzleak debekatua du:

1. Bere lanpostuari dagozkion zerbitzuak emateagatik, inolako eskupekorik, esker-saririk, oparirik edo prebendarik jasotzea.
2. Beharrezko baimenik gabe, ehorzteko nahiz desehorzteko zerbitzuak eskaintzea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Gorpuak edo gorpuzkiak profanatzea edo lotsagabe manipulatzeko.
4. Hilerria edo bertako instalazioak berez ez dagozkien jardueretarako erabiltzea.

X. K A P I T U L U A

URRATZEAK

59. ARTIKULUA.- Araudi honetan jasotako manuak urratzen badira, alkateak zehapenak ezarriko dizkio urratzaileari, Legeak aurreikusitako gehieneko mugaraino, eta, horrez gain, Zigor Kodearen bidez jar dakizkiokeen ardurak eta zehapenak ere ezarri ahal izango zaizkio.

AZKEN XEDAPENAK


LEHENA: Udalak araudi hau aldatzeko gaitasuna du, eta zerbitzuaren erabiltzaileek edota hileta-eskubideen titularrek ez dute ez erreklamazioak egiteko ez kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik.

BIGARRENA: Araudi hau aplikatzean eta interpretatzean sor daitezkeen gertakariak ebazteko gaitasuna du Udalak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gorpuzkiak gordetzeko horma-hobiak eraikitzen ez diren bitartean, horma-hobi mota horri dagozkion artikuluz guztiak indarririk gabe egongo dira.





DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

EGINBIDEA.-

Nik neuk eman dut, Udalbatzako idazkari nagusiaren lanetan dihardudalako; eta, horren bidez, idatziz jasoarazi dut araudi hau Udaleko Osoko Bilkurak onartu zuela 1986ko apirilaren 9an egindako bilkura berezian.

Durango, 1997ko azaroaren 24a.

Vº Bº
Alkatea,

Idazkaria,

EGINBIDEA.-

Nik neuk eman dut, Udalbatzako idazkari nagusiaren lanetan dihardudalako, eta, horren bidez, idatziz jasoarazi dut araudi hau 1987ko urtarrilaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren Eranskinean argitaratu zela.

Durango, 1997ko azaroaren 24a.

Vº Bº
Alkatea,

Idazkaria,

EGINBIDEA.-

Nik neuk eman dut, Udalbatzako idazkari nagusiaren lanetan dihardudalako, eta, horren bidez, idatziz jasoarazi dut 1988ko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiz araudi honetan zenbait aldaketa onartu zirela (L. eta LI. artikulak).

Durango, 1997ko azaroaren 24a.

Vº Bº
Alkatea,

Idazkaria,